

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK 2013 EKITALDIAN AURREKONTU OROKORRAK IZAN DITZAN LAGUNTZEKO OINARRIEN DOKUMENTUA

HITZAURREA

Dokumentu honen helburua da akordiorako oinarri batzuk ezartzea. Oinarri horiek gutxieneko oinarri komuna izango dira, EAEko 2013ko Aurrekontu Orokorren Legea egiteko eta gaur egungo egoera, hots, 2012ko Aurrekontu Orokorren luzapen-egoera, amaitzeko.

Dokumentu hau izenpetu dugunok bat gatoz: ez da batere komeni aurrekontuak luzatzea. Izan ere, aurrekontuak luzatzeak ziurtasun-gabezia juridikoa eta ekonomikoa dakartza; ez du behar bezala erakusten zer politika publiko behar dituen Euskadik gaur egungo egoera ekonomikoan; administrazioaren finantza-kudeaketa oztopatzen du, aurrekontua hainbatetan aldatu baita; eta, politikaren eta gizartearen ikuspuntutik, finantza publikoei are ezegonkortasun ekonomiko handiagoa ematen die, eta hori ez da komenigarria; hain zuzen ere, arlo publikoan, finantzen behin-behinekotasuna nagusi dela sentiarazten eta jakinarazten baitie Euskadin jarduten duten sektore eta eragile ekonomiko eta sozialei eta, oro har, herritarrei, eta hori ez da egokia, ezta desiragarria ere.

Urte honetan aurrekontu orokorrak izateak bide emango digu autonomia-erkidegoaren eskumeneko politika publikoak benetako egoera

ekonomikora egokitze eta autonomia erkidegoko finantza publikoak behar bezala kudeatzeko, eta, horretaz gainera, segurtasun politikoa eta instituzionala ekarriko du, eta hori oso garrantzitsua da, eta, gerora, egonkortasun politikoa eta instituzionala ekarriko du ekonomiaren eta aurrekontuen arloan, eta, hori, zalantzarik gabe, inplikaturako eragile politikoek hartutako erantzukizun-konpromisoaren adierazgarri da.

Gobernua den alderdi politikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren bidez, eta babesten gaituen legebiltzar-taldea arduratu dira, hain zuzen ere, EAEko 2013ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen lege-proiektua bideratzeaz. Horregatik, ardura horrek bultzatuta, badakigu oinarrizko konpromiso batzuk hartu ahal eta behar ditugula ekonomiaren arloan, urte honetako kontuak onartzea denon ardura izan dadin. Horrek esan nahi du kontuan hartuko ditugula akordio hau izenpetzen dutenen ikuspegiak, lehentasunak eta ekonomiaren eta finantzen arloei begira dituzten ikuspuntuak. Horretaz gainera, jakin badakigu akordio hau izenpetu duten guztiek lehenetsi egiten dutela enplegua sortzeko politikak egitea, gizarte-babeserako euskal sistema babestea eta ekonomiaren arlo guztiak sustatzea.

Bestalde, bat gatoz 2013 ekitaldia bereziki zaila eta konplexua izango dela, gero aipatuko dudako finantzen eta aurrekontuen testuinguruaren ikuspuntutik ez ezik, bizi dugun garaiaren eta ziklo ekonomikoaren ikuspuntutik ere. Horregatik, gogoan izan behar dugu 2014ko aurrekontuak egiteko jarraibideak prestatzean onartu beharko direla 2013ko aurrekontuak. Ezinezkoa ez bada ere, zaila da bi proiektuok ez lotzea; izan ere, politika ekonomikoko tresna diren aldetik, aurrekontuak ziklo ekonomiko oso baten barruan hartu behar ditugu.

Aurrekontuak politika ekonomikoko tresnatzat hartzeak zera esan nahi du: akordio hau izenpetzen dugunok badakigula ekitaldi honetako aurrekontu orokorrak onartzeak bultzatu egiten gaituela 2013. urtean eta hurrengo urtearen hasieran garatuko diren politika publikoak elkarrekin egitera. Hurrengo urteko ekitaldiari dagokionez, dokumentu honetan aipatzen diren konpromisoak, diru-sarreraren eta gastuen arlokoak, denboran kokatu behar dira, modu naturalean kokatu ere. Horiek horrela, adibide gisa: diru-sarreraren ikuspuntutik, ekitaldi honetan euskal zerga-sisteman egiten den erreforma orok hurrengo ekitaldian emango ditu fruituak, eta, gastuen ikuspuntutik, aurten planifikatzen den politika publiko orok, gutxienez, hurrengo urteko ekonomian eta aurrekontuetan izango du eragina.

Testuingurua horretan eta kontuan hartu gabe dokumentu honetan jasotako konpromisoak EAEko 2013ko Aurrekontuak onartzen dituen Legea onartzeari buruzkoak soilik diren ala ez, ez dago zalantzarik dokumentu honen edukiak ondorioak izango dituela datozen urteetan. Horregatik, ekitaldi honi hasiera emango dioten politika publiko batzuen ildo estrategikoak beste batzuekin egitea konpromiso bat izan daiteke; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak dokumentu hau izenpetu dutenekin hartzen duen konpromiso bat.

Horiek horrela, dokumentu hau izenpetu dugunon ustez, Euskadik gaur egun bizi duen krisi ekonomikoari eta ia aurrekontu-larrialdia den egoera honi aurre egite aldera, ezinbestekoa da eragile politikoek jarduera hitzartuak egitea, zertarako eta, jarduera horien eta gizartearen testuinguruan egiten diren beste jarduera batzuen bidez, erantzukizun instituzionala eta egonkortasun publikoa sentiarazteko herritarrei; nolanahi

ere, dokumentu izenpetzen duten alderdiek beren postulatu ideologiko eta politikoei eutsi ahal diete krisi ekonomikoari aurre egiteko moduen inguruan. Alde horretatik, dokumentu honetan jaso ditugu denon oinarri komunak, 2013 ekitaldiari aurre egiteko beharrezkoa den gutxieneko adostasunaosatzen dutenak.

Egiturari dagokionez, dokumentu honek bi atal ditu. Lehenengo atalean, EAEk gaur egun zer eduki ekonomiko zehatzi aurre egin behar dion deskribatzen da, eta, bigarrean, zer konpromiso zehatz hartzen diren esaten da, 2013. urteari begira egin beharreko diru-sarreraren eta gastuen berariazko politikari dagokienez.

I. GAUR EGUNGO TESTUINGURU EKONOMIKOA ETA 2013

EKITALDIKOA

2008. urteaz geroztik, 83.000 lan-postu galdu ditugu; guztizkoaren % 8,5. 2006tik 2008ra bitartean, enplegu betearen izan genuen (langabezia-tasa % 4tik beherakoa izan zen). Orain, berriz, langabezia-tasa, batez beste, % 12,1 da, eta azken boladak bilakaera zinez kezagarria da.

2013ko apirilean, euskal ekonomiaren aldagai nagusiek oso bilakaera negatiboa erakutsi dute. Ildo horretatik, industria-ekoizpenak zazpi puntu egin du behera, iazko balioarekin alderatuta, eta krisia hasi zenetik, orokorrean, % 32 egin du behera. Hau da, sei urtetan, sektorearen fakturazioaren herena galdu dugu. Industriako giroa oso txarra da; hein handi batean, eskabide-zorroa behar baino txikiagoa delako eta kredituak eskuratzeko zailtasun handiak daudelako.

Kanpoko sektoreak soilik eman dizkigu berri onak. Nolanahi ere, inportazioek behera egin dutelako da hori, eta ez, salmentek gora egin dutelako. Azken hiruhilekoetan, kanporako salmentek bilakaera negatiboa izan dute. Kontuan hartu behar dugu, batetik, Europako ekonomiak ahul daudela eta ekonomia horiek direla, hain zuzen ere, hemen ekoitzitako produktuen jomuga, eta, bestetik, munduko merkataritza, oro har, ez aurrera ez atzera gelditu zela iaz (- % 0,1eko hazkundera).

Datu horiek eta beste antzeko batzuek argi uzten dute erronka ekonomiko eta sozial zinez konplexu eta aurrekaririk gabeko bat dugula aurrez aurre. Zehazki, berebiziko krisi hau bi faktoreren ondorio da. Alde batetik, euskal enpresek mundu mailako lehia askeari aurre egin behar diote. Kontuan hartu behar dugu prezioek gora egin dutela eta finantzaketa jasotzeko mugak dituztela, beste garai batzuekin alderatuta. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak gaitasun mugatua du krisialditik epe laburrean edo ertainean irteteko politikak abiarazteko, finantza-merkatuak oso kontuz baitabilta, defizit eta zor publikoa direla eta. Ildo horretatik, Europako Erkidegoak zerga-politika atzerakorrak aplikatu ditu. Akordio hau izenpetu dugunon ustez, politika horiek malgutu egin beharko lirateke, eta ñabardurak egin.

II. KONPROMISO ZEHATZAK, DESKRIBATUTAKO TESTUINGURUARI

AURRE EGITEKO

Deskribatutako testuinguruari aurre egite aldera, konpromiso hauek hartu ditugu gai hauen inguruan:

1.- Zerga-erreformaren eta iruzurraren aurkako borrokaren inguruko konpromisoak.

2.- Konpromisoak beste baliabideen erabileraz, halakorik balego.

3.- Konpromisoak partekatutako politika publikoen esparruan.

4.- Autonomia Erkidegoko sektore publikoa erreformatzeko eta berregituratzeko konpromisoak.

5.- Jarduera jakinei buruzko konpromisoak; oraingo honetan, zuzenketak izapidetzean.

1. 1.- Zerga-erreformaren eta iruzurraren aurkako borrokaren inguruko konpromisoak.

Zerga-sistema ongizate-estatuaren elementu nagusietako bat da; izan ere, haren baitan dago gizarteak behar adina baliabide izatea zerbitzu eta prestazio publikoei eusteko, hots, pertsonen berdintasuna eta elkartasuna bermatzeko. Halaber, aberastasuna herritarren artean eraginkortasunez banatzeko balio du, aurrerabidearen eta gizarte-justiziaren alde egiteko. Horretaz gainera, lehen mailako politika ekonomikoko tresnatzat hartu behar dugu zerga-sistema; izan ere, jarduera ekonomikoa, enplegua eta aurrerabide kolektiboa sustatzen ditu.

Printzipio horiek oinarri hartuta, ezinbestekoa da Euskadin zerga-erreforma sakon bat hitzartzea. Erakunde eskudunek erreforma horren araudi bateratua onartu beharko lukete urte hau amaitu aurretik, 2014 ekitaldian aplika dadin.

Halaber, konpromiso saihestezina da beharrezko neurriak hitzartzea zerga-iruzurra errotik desagerrarazteko, herritarren elkartasuna hausten baitu. Hitzarmen horrek ahalik eta zabalena izan behar du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparru instituzional osoa inplikatu.

Konpromiso horiek lortuko ditugula bermatze aldera, hiru eremutan jardun behar dugu bereziki, eta helburu horiek lortzeko egokiak diren neurriak hartu behar ditugu. Jardun-eremu horiek bat datoz konpromiso hauekin: zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa, gure zerga-sistemaren zerga nagusiak erreformatzeko konpromisoa eta, azkenik, gure zerga-sisteman zerga berriak sartzeko konpromisoa, zerga horiek Estatuarekin adostuz.

Lehenengo konpromisoa: zerga-iruzurraren aurkako borroka.

Zerga-iruzurraren aurkako borrokak izan behar du herri-administrazioen lehentasuna, eta, batez ere, zerga-administrazioen lehentasuna. Horrek bide emango digu sistema legezkotzat jotzeko, herritarren atxikimendua eta erantzunkidetasuna lortzeko, eta gizartearen aurkako jarreraren bidez zerga-sistema justua, bidezkoa eta nahikoa izatea oztopatzen dutenen elkartasunik ezaren aurka egiteko. Horren harira, Autonomia Erkidegoaren esparruan Iruzurraren aurka borroka egiteko Batzordea eratzea proposatu dugu. Batzorde hori organo tekniko gisa eratuko da, eta espezializatu egingo da eskumen horiek eskusiboki dituzten erakundeek urtero-urtero iruzurraren aurka borrokatzeko egin beharreko ekintzen jarraibideak egiten eta jarraibide horien jarraipen egiten.

Jarraibide horiek plan batean jasoko dira; Iruzurraren aurka borroka egiteko osoko planean, hain zuzen ere. Plan horrek hainbat alderdi izango

ditu, eta helburu hauek: herritarrak kontzientziaztea eta zerga-obligazioak borondatez betetzera bultzatzea; zergak saihesteko bideak galaraztea, hautematea eta esatea; iruzurraren aurkako tresnak eta iruzurrezko jokabideen aurkako zigorrak hobetzea eta indartzea; giza baliabideak eta baliabide teknikoak hobetzea; informazio-trukea hobetzea eta azkartzea, batez ere, aldi berean zenbait zerga-administrazioetan zergak ordaintzen dituzten zergadunen erroldari buruzko informazioa; eta, amaitzeko, datu-baseak etengabe eguneratzen direla bermatzea.

Zerga-mota bakoitzari buruzko arlo espezifikoan, ezinbestekoa da neurriak hartzea zergak saihesteko aukera handien duten jardueretan arrisku hori murrizteko. Orobat bermatu behar da zergadunek beren egiazko gaitasun ekonomikoaren arabera ordainduko dituztela zergak.

Bigarren konpromisoa: Zerga-sistemaren zerga nagusiak erreformatzea: PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga.

Euskadiko erakunde eskudunek beren gaitasun arauemailearen pean dituzten zergei dagokienez, hots, funtsean, pertsona fisikoen eta juridikoen gaineko zerga zuzenei dagokienez, ezinbestekoa da zerga horietako bakoitzak gaur egun zer eginkizun duen aztertzea, bai eta zerga horietako bakoitzak bere eginkizuna zer heinetan betetzen duen aztertzea ere. Orobat bermatu behar da, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren baitan, Lurralde Historikoetako zerga-administrazioak bat datozeela.

Gure konpromisoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erreforma hitzartzea. Oinarrizko egiturak bere horretan jarraituko du, eta zuzentasun-, aurrerabide-, neutraltasun-, gardentasun- eta sinplifikazio-printzipioak indartuko ditugu, eta are oreka handiagoa ezarriko dugu

printzipio horien artean. Bermatu egingo dugu gehiago dutenek ekarpen handiagoa egingo dutela gastu komunei eusteko eta ekarpen hori ez dela proportzioaren arabera egingo: errenta edo gaitasun ekonomiko handiagoa dutenei ahalegin handiagoa egiteko eskatuko diegu.

Horretaz gainera, beharrezkoa da gaur egun jarduera ekonomikoen arloan dauden iruzurraren aurkako neurriak indartzea, bermatu egin behar baita zergadunek egiazko gaitasun ekonomikoaren arabera ordainduko dituztela zergak. Ildo horretatik, gastu jakin batzuen kengarritasuna berrikusi behar da, modulu bidezko kalkulu-sistemak poliki-poliki ezabatu behar dira, eta informazio-betebeharrak areagotu.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga osorik aldatzeko neurri zehatzak talde sinatzaileen artean adostu beharko dira (hau da, koefiziente berriak, tarifa orokorra, aurrezkiaren tarifa, tarte berriak tasa marjinaletan, salbuetsitako errentak, kenketen egokitzapena, ohiko etxebizitzaren tratamendua eta abar).

Bestalde, gure enpresek beren ekoizpen-jarduera garatu behar duten globalizazio-testuinguru honetan, eta kontuan hartuta gaur egungo egoera ekonomikoa, beharrezkoa da **Sozietateen gaineko Zerga** ere sakon aldatzea, eta, horretarako, neurri fiskal aurreratuenak baliatu behar dira enpresen zerga-ordainketan, gure sare produktiboa sendotzeko eta lehiakorra izateko, batez ere enpresa txiki eta ertainez osatuta baitago, bai eta aberastasuna eta enplegua sortzeko ere.

Horregatik, gure proposamena da sozietateen gaineko zerga berriak eustea jarduera ekonomikoa eta enplegua dinamizatzen dituzten pizgarriei; batez ere aktibo finko arruntetan inbertitzeari lotutako kenketei, eta

enpleguarekin nahiz ikerketan, garapenean, berrikuntzan eta ingurumenean laguntzearekin zerikusia dutenei; era berean, sortu zirenean jarri ziren helburuak betetzen ez dituzten kenketak eta zergaren araubide bereziak berriz aztertu nahi ditugu, eta, behar izanez gero, kendu.

Bestalde, eta egungo krisi ekonomikoaren zoritxarreko ondorioak gainditu beharra kontuan hartuta, uste dugu egokia dela neurri berriak hartzea, besteak beste, enpresak kapitalizatzea eta nazioartekotzea sustatzeko, atzerrian merkatu berriak bilatzeko eta jabetza industrialak garatzeko.

Gure konpromisoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erreforma osoa modu adostuan egitea Zerga Koordinaziorako Organoan, oraingo bilkura-aldia amaitu baino lehen, haien testu arau-emaileak aurtengo ekitaldian onartu ahal izateko kasuan kasuko batzar nagusian, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahal izateko.

Zuzeneko zerga bi horien erreforma osoarekin batera, gure konpromisoa da erreforma partzialak hitzartzea Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketen gainekoan.

Hirugarren konpromisoa: Zerga berriak hitzartzea.

Azken garai honetan, Estatuan askotarikoak diren eta, era berean, helburu desberdinak dituzten zenbait zerga sartu dituzte lurralde erkidegoko zerga-sisteman.

Indarreko Kontzertu Ekonomikoaren bigarren xedapen gehigarriak 2. atalean dio hitzartu beharrekoak direla Estatuaren zerga-ordenamendu juridikoaren erreformaren ondorioz sortzen diren zergak, baldin eta

erreforma horrek Kontzertu Ekonomikoari eragiten badio. Horrekin bat etorruta, aipatutako Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoen araubideek berezko dituzten zaintze-klausulak jasota daude zerga horien sorrera berekin dakarten lege-testuetan.

Zehazki, honako hauek daude egoera horretan:

- Joko-jardueren gainerako zerga: Estatuan, bide elektronikoak, informatikoak, telematikoak eta elkarreragileak erabiliz egiten diren joko-jarduerak zergapetzen ditu.
- Kreditu-erakundeetako gordailuen gainerako zerga: haietako bakoitzean gordailututako saldoen zenbatekoa zergapetzen du.
- Energia-jasangarritasunari buruzko araudiaren babesean sortutako hiru zerga berriak: Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gainerako zerga, Energia nukleoelektrikoa sortzearen ondorioz erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak ekoiztearen gainerako zerga eta Erregai nuklear gastatua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitratzearen gainerako zerga.

Itundutako erregimenaren ondoriozko betebeharrak direla eta, gure konpromisoa da zerga berriei buruzko ituna ahalik eta lasterren lortzen ahalegintzea, eta, horrenbestez, gure zerga-sistemen osotasuna ziurtatzea.

2. Konpromisoak beste baliabideen erabileraz, halakorik balego 2013. urtean zehar.

Aurrekontu Proiektua egitean, Barne Produktu Gordinaren %0,7 izan da defizit-helburua; hau da, 462,5 milioi euro, Barne Produktu Gordina 2013an 66.078,5 milioi eurokoa izango dela joz gero. Hala ere, espero da Europar Batzordeak defizit-helburua lasaitu nahi izatea Estaturako, 2013. urte honetan, eta, horrenbestez, lasaitze hori autonomia-erkidegoetara iristeko aukera dago; horren ondorioa izango litzateke Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013. urterako aurrekontuan goranzko aldaketa bat gertatzea.

Gehikuntza horrek, ordea, badu muga bat: indarreko legediaren arabera, inbertsio moduan hartzen diren gastuetara bideratu behar da.

Prozesu hori aurrekontua onartu ondoren gauzatuko litzateke, eta, horretarako, beharrezkoa izango litzateke Legebiltzarrean Kreditu Gehigarriari buruzko Lege Proiektua aurkeztea, eta hartan, gastuen aurrekontu-kredituak eta sarrerak zor moduan zehaztuta egotea.

Baliabide horiek aurrekontu-kredituetan erabiliko lirateke, jarduera ekonomikoa sustatzen laguntzeko Inbertsio gehi Garapen gehi berrikuntzan, politika industrialean, azpiegituretan eta abar.

Eusko Jaurlaritzaren berariazko konpromisoa da baliabide gehigarri horien esleipena itunduta egotea dokumentu hau izenpetzen dutenen Legebiltzarreko taldeekin, Gobernuak Kreditu Gehigarriari buruzko Lege Proiektua aurkeztu baino lehen.

3. Konpromisoak partekatutako politika publikoen esparruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren politika publikoak EAEko baliabideen banaketa-sisteman jatorria duen diru-bilketako politikaren ifrentzua dira. Euskal Autonomia Erkidegoan eskumen autonomikoak erabiliz prestatzen diren politika publikoetan, plangintza estrategikoa da haiek dokumentu bidez adierazteko modurik ohikoena, eta, beraz, Euskadin, gaur egun, izugarri handia da politika publiko asko eta askotarikoen urte anitzeko plangintza eskatzen duten lege sektorialak. Horrez gain, politika publikoak planen eta programen bidez bidera daitezke, inolako legek aurreikusi eta arautu behar izan gabe, eta plan nahiz programa horiek gobernantza-moduak dira sektoreetako politika publikoen esparruan. Teknika hori errotuz joan da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horrenbestez, gaur egun, edozein politika publikoren helburuak, ekintzak eta adierazleak antolatzea administrazioaren jardura planifikatzeko bide normala da sektore askotan.

Horiek horrela, 2013. urte honetan, Jaurlaritzaren lehentasunekin zerikusia duten politika sektorial batzuk inplementatu egin behar dira kasu batzuetan, eta berriz aztertu, beste batzuetan, eta, horregatik, jardura administratiboan, instituzionalean eta politikoan, sektore batzuk Eusko Jaurlaritzak onartuko dituen plan edo programen bidez planifikatu ahal izango dira.

Eusko Jaurlaritzak dokumentu honen sinatzaileei hitz ematen die Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko ekitaldian onetsiko dituen planen berri emango diela haiek onartu baino lehen, plan horien iturburua indarreko legezko erregulazioak izan, edo Gobernuak bere politikak gizartean gauzatzeko aipatu teknika horren alde egindako hautua izan; horrenbestez, sinatzaileek egoki iritzitako iradokizun guztiak egin ahal izango dituzte.

Bereziki, hitz ematen dugu honako plan zehatz hauen oinarrizko ildo estrategikoak negoziatuko ditugula dokumentuaren sinatzaileekin, Jaurlaritzaren Kontseiluak haiek onartu baino lehen; izan ere jokabide hori, 2013. urterako, eta gastuari dagokionez, dokumentu honen funts ekonomikoa da:

- ***Industrian jarduteko programa berria.***

- Lehiakortasun-politika berria izan behar dugu, gure gaitasunetan oinarritutako espezializazioa kontuan har dezan, berrikuntza eta nazioartekotzea susta ditzan, eta, horrekin batera, egitura dibertsifikatzen ahalegindu behar dugu, hazkunde-ahalmen handiko sektore edo esparruetarantz bideratuz, S3 Estrategia/Adimendun Espezializazio-politikaren ildotik. Konpromiso honi dagokion zatia Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Legeak bere 20. artikuluan "Erakundearteko Industria Plan Estrategikoa" esaten dionari buruzkoa da. Jakina, negoziazioak muga bat izan behar du: indarrean egongo den urterako erabakitako aurrekontu-sabaia.

- ***Ekintzaileen Jarduera Sustatzeko Plana.*** Plana hau berria izango litzateke, zuzenean baitator 16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoa deritzonaren 13. artikulutik, eta berritzailea da Euskadiko araugintzan; gainera, laguntza interesgarria ematen du Euskal

Autonomia Erkidegoan autonomoen lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko.

Aipatutako plangintza sektoriala alde batera utzita, dokumentu honen sinatzaileen ustez lehentasunezkoa da gogoeta egitea Euskadiko gizarte-babeserako eta enplegurako sistema taxutzen duten politika publikoei buruz, haiek elkartasunezko bizikidetza eta gizarte-babeserako oinarria baitira, eta haietan atzera egiteak ezin onartuzko kostuak izango bailituzke Euskadiko gizartearen kohesioan. Arlo honetan, argi dago autonomiako arau- eta lege-alderdiak, haien geroko garapenak eta proposamen betearazleak gorabehera, aski direla, eta ez dela aldaketa handirik egin behar bloke arau-emaitan. Eta hala, gizarte-zerbitzuei buruzko legeek, diru-sarrerak bermatzeari buruzko arauak, gizarte-premiei eta etxebizitzari lotuta dauzkaten adar guztiekin, eta familiari buruzko arauak ez dute inolako berrikuspen-beharrik; horrenbestez, Eusko Jaurlaritzak baliabideen esleipenaz eta kudeaketaz hartu behar ditu konpromisoak, aurten eta hurrengo urtean politika horietarako egungo baliabide-mailari eusteko, eta Euskadiko gizartearen ongizate-esparrua babesten duten politika horiek trebetasunez eta eraginkortasunez kudeatzeko.

Era berean, enplegua lehentasunezkoa da, baina hurbilago dago plangintzatik eta baliabideen esleipenetik, arauetatik baino. Horregatik, dokumentu honen sinatzaileak, Eusko Jaurlaritzarekin batera, Enpleguaren Euskal Planaren inguruan erabakitako neurrien zati handiena abian jartzera konprometitzen dira, eta, 2013an, eskura dauden baliabideen arabera, politika horien ildokoak izan daitezkeen beste batzuetan ados jartzera.

4. Autonomia Erkidegoko sektore publikoa erreformatzeko eta berregituratzeko konpromisoak.

Euskadiko administrazioa berregituratzea eta sektore publikoa berriz dimentsionatzea denboran zehar errepikatu diren ekimenak izan dira, baina garrantzi berezia hartu dute legegintzaldi honetan, ez bakarrik zerbitzu publikoak ematean izan beharreko eraginkortasunari edo antolaketari hertsiki lotutako arrazoiengatik, bai eta baliabide publikoen erabileran izan beharreko efizientziari eta ekonomiari lotutako arrazoiengatik ere. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak erabiltzean kostu-irabaziak optimizatzeak alderdi instituzionala eta antolaketari lotutakoa dauka, eta hori ez da inola ere gutxietsi behar, eta gogoetarako guneen bidez nahiz, hala egokituz gero, erakundeen berrantolaketaren bidez azaltzen da estualdi ekonomikoetan.

Legegintzaldi honen hasieran argi ikusten da beharrezkoa dela, lehendabizi, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa aztertzea eta, ondoren, berregituratzea, administrazioa orekatuagoa izateko haren pertsonifikazio instituzionaletan, eta autonomiako sektore publikoa hain zabala ez izan eta hain sakabanatuta ez egoteko, zerbitzu publikoak ematean eraginkortasuna hobetuz, zuzendaritza-egiturak murriztuz eta enpleguaren murrizte traumatikoa saihestuz.

Gauzak argi ikuste hori, kontzientzia hartze hori, bi mailatan gertatu da. Alde batetik, hertsiki botere **betearazleari** dagokion mailan, Eusko Jaurlaritzaren barruan izan diren hainbat motatako berariazko adierazpenen eta hausnarketan bidez. Begi-bistakoa da, gainera, Euskadiko sektore publikoaren birdimentsionatze-gaiak arduratu den maila **parlamentario** bat egon dela, eta X. legegintzaldi honetan agerian utzi duela legegileak gaiari buruz duen kezka. Kezka horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa atzerapenik gabe birdimentsionatzeko plan bat martxan jar

dezala eskatu zaio Jaurlaritzari zenbait legebiltzar-ekimenen bidez, eta onartu egin dira.

Bada, enpresa-sektore publikoa birdimentsionatzeari eta berregituratzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak dokumentu honen sinatzaileei agintzen die aukera izango dutela edukiari eta abian jartzeko epeari buruzko iritzia eman eta ekarpenak egiteko, Jaurlaritzaren Kontseiluak birdimentsionatze-plana eta hura Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan gauzatzeko eredia onartu baino lehen.

5. Jarduera jakinei buruzko konpromisoak; oraingo honetan, zuzenketak izapidetzean.

Arlo honetan hartutako konpromisoak esan nahi du sinatzaileek beren gastu-lehentasunei dagokienez aurkeztutako zuzenketak negoziatzeko asmoa duela, izapidetze-bidean dauden aurrekontuen proiektuan aldaketak egin ahal izateko, eta, horrenbestez, sinatzaileen marka bistaratzen duten ekimenetarako inbertsio publikoa sustatzeko.

